



# IPAR EUSKAL HERRIA

MUNDUARI ITZULIA EGIN DIOGU, ESKANDINABIATIK HASI, AEB-ETATIK PASA,  
JAPONIA BISITATU... ETA URTEARI AMAIERA EMATEKO, ETXERA BUELTAN PLAN EZIN  
EDERRAGOA PROPOSATZEN DIZUT: IPAR EUSKAL HERRIAN ASTEBURU PASA KULTURALA!

**Testua:** Jokin Etcheverria [@films\\_jok](#)

Batzuentzako etxe alboko plana izango da, eta oinez joango zarete. Hurbil zaretenak edo kirolariak, agian bizikletaz animatuko zarete. Gainontze-koentzako, aukerarik onena kotxez bertaratzea.

Hala ere, garraio publikoa erabiltzearen alde egin nahi baduzu, jakin Bilbotik, Donostiatik, Gasteiztik eta Iruñetik autobusak badirela Hendaia, Donibane Lohitzune, Miarritze eta Baionara. Eta egingo ditudan txango proposamena burutzeko lurraldeko autobus zerbitzua erabili dezakezu; hori bai, soilik gomendagarria aenturazaleentzat!

### 📍 ZER IKUSI

Baionara hurbildu eta tren geltokitik hurbil dagoen, Sainte Catherine kaleko 35.ean, **Space Junk** galeria ezagutu behar duzu; bertatik pasatzen dira munduko street artista nagusiak. Urtarrilaren 23ra arte, kasu, Nicolas Thomassen marrazki eta diseinuak



ikusitoki ahal izango dituzu; gizaki garaikidea hizpide duten lanak.

### 📍 NON AFALDU

Ziburuko plazan toki berri bat ireki dute: **Maitenia**. Lapurtar bat, nafar bat eta irlandar bat aurkituko dituzu bertan! Slow food delakoa dastatzeko aukera izango duzu: pintxo goxoak eta sekulako anoak, dena bihotzarekin hautatutako produktuekin eginga. Alde gastronomikotik harago, kultur bilgune ere bihurtzen ari da; hala, baliteke egun batean Jon Garmendia (@txuriya) poeta eta kazetaria liburu bat aurkezten topatzea, eta hurrengoan sukaldean kuia sopa prestatzen. Ingelesean esan ohi den bezala, *place-to-be* horietakoa dugu Maitenia toki xarmanta.

### 📍 NON JAIA EGIN

Miarritzeko **Atabal** gela baino hoberik zail aurkituko duzu zuzeneko kontzertuez gozatzeko. Hau ere tren geltotik hurbil kokatzen da. Electronica eta abstract hip-hop-a gustuko badituzu, adi, abenduaren 18an Birdy Nam Nam arituko baita.




### 📍 NON LO EGIN

Miarritzen badira gazteentzako aterpetxeak, baina kontzertuaren ostean lo egiteko aukerarik onena bere ohea konpartitzera gonbida zaitzakeen norbait aurkitzea izan daiteke. Aldiz, arriskatu nahi ez baduzu, **Airbnb** webgunea balia dezakezu apartamentu bat aurkitzeko, eta horrela, heltzen zarenerako jada koadrila bat izan dezakezu zain!

### 📍 AJEA PASATZEKO

Festa egin ondorengo egunerako plan ederra duzu Hazparnera joatea. Abenduaren 4tik 6ra bazoaz, **Euskal antzerki asteburuarekin** topa egingo duzu. Tartean, Lauka Teatroaren *Amodioaren ziega*, Huts Teatroaren *Etxekoak* eta *5'inhalak* sorkuntza ikusi ahalko dituzu. Otorduetarako aukera bikaina da **Txuriatean** taberna-jatetxea.



Ondo pasa Iparraldetik, azkar topatzen ahal gara han edo hemen!